Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Idazkari Nagusia
Secretario General

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2017ko martxoaren 28an izandako ohiko bileran, aho batez onartu zuen, jarraian transkribatu den Erakunde Adierazpena:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de marzo de 2017, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*"1960ko martxoaren 21ean, Hego Afrikako poliziak dozenaka pertsona hil zituen apartheidaren legeen aurkako manifestazio baketsua egiten ari zirela. Gertakari horien oroigarri, 1966an NBEk Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Egun izendatu zuen data hori.*

*"El 21 de marzo de 1960 la policía sudafricana asesinó decenas de personas que se manifestaban pacíficamente en contra de las leyes del apartheid. Como recuerdo de esos sucesos en 1966 la ONU proclamó esta fecha como el Día Internacional para la Eliminación de la Discriminación Racial.*

*Gaurkoa bezalako egun batean, ezinbestekoa da gogoeta egitea tratu berdinerako eta arraza edo etnia dela eta diskriminaziorik ez jasateko funtsezko eskubidea bermatzeko eta gorroto delituekin loturiko bazterkeria, intolerantzia eta indarkeria errotik kentzeko sortzen diren premiei buruz.*

*En un día como este se hace necesario hacer una reflexión sobre las necesidades que a día de hoy surgen para garantizar el derecho fundamental de igualdad de trato y a la no discriminación por motivos de raza o etnia y de erradicar la discriminación, la intolerancia y la violencia que supongan delitos de odio.*

*Desorekak are gehiago nabarmentzen dituen eta arraza bazterkeriarekin loturiko estigmaren bat duten pertsonei gehien eragiten dien krisi ekonomikoaren testuingurua gorabehera, beste herrialde batzuetatik eta, bereziki, Ekialde Ertainetik eta Hurbiletik etorritako iheslarien mugimendu berriak Europako gizarteek bizi dituzten desoreka eta desberdintasun arazoen errudun bilakatzen ari da.*

*Independientemente del contexto de crisis económica, que siempre acentúa las desigualdades y que las personas que más la sufren son precisamente aquellas que padecen algún estigma de discriminación racial, los movimientos recientes de refugiados provenientes de otros países especialmente de oriente medio y próximo se están convirtiendo en el chivo expiatorio de los problemas de desigualdad que padecen las sociedades europeas.*

*Barne mugarik eza eta pertsonen zirkulazio askea Batasunaren printzipio dituen Europa honetan, etengabe sortzen dira segregazio kulturaleko eta izaera arrazista eta xenofoboko adierazpenak. Jarrera horiek saihestea da agintarien eta gobernuen erronka nagusia, bai eskualde mailan, bai estatu edo toki mailan, hala pertsonen arraza edo etnia berdintasunari erasotzen dioten jarrerak geldiarazteko lege aproposak sortuta eta/edo ezarrita, hau da, Zuzenbide Estatuaren arma guztiak baliatuta arraza bazterkeriako edozer adierazpenen aurka.*

*En esta Europa sin fronteras internas y con la libre circulación de personas como principio de la Unión, surgen continuamente manifestaciones y actitudes de segregación cultural y de carácter racista y xenófobo. Evitar estas actitudes supone el principal reto de las autoridades y gobiernos, tanto a nivel regional como estatal o local creando y/o aplicando las leyes correspondientes para frenar comportamientos que atenten contra la igualdad racial o étnica de las personas, es decir, luchar con todas las armas del Estado de Derecho cualquier manifestación de discriminación racial.*

*Hortaz, argi utzi behar da arraza diskriminazioa saihestu eta jazartzea ez dela nahikoa. Erabat ezabatu behar da espazio publikotik, zer bidetik hedatzen den gorabehera. Adierazpen askatasuna ezin da erabili eta ez da erabili behar adierazpen arrazistak edo xenofoboak egiteko aitzakia gisa. Horrekin lotuta, Auzitegi Konstituzionalak honakoa adierazi zuen SStako jeneral izandako Leon Degrellek 1985ean Espainiako aldizkari batean nazien genozidioa ukatzen zuten adierazpenak egin ostean Auschwitzeko kontzentrazio esparrutik bizirik irtendako Violeta Friedman judutarrak ezarritako demandari zegokion epaian: "Ideologia eta adierazpen askatasuna baliatzeko eskubideek ezin dituzte talde etniko, atzerritar edo etorkin talde, edo talde erlijioso edo sozial jakin batzuk gutxiesteko edo haien aurkako etsaitasun sentimenduak sortzeko adierazpenak babestu".*

*Por lo tanto, debe quedar claro que la discriminación racial no sólo debe ser evitada y perseguida sino que debe ser eliminada del espacio público independientemente del medio por el que se difundan. La libertad de expresión no puede ni debe ser una coartada para permitir manifestaciones racistas o xenófobas. En este sentido, el Tribunal Constitucional, ante la demanda formulada por Violeta Friedman, judía superviviente del campo de concentración de Auschwitz, por las declaraciones realizadas por Leon Degrelle, ex-general de las SS, a una revista española en 1985, en las que negaba el genocidio nazi, consideró en su sentencia que: "Ni el ejercicio de la libertad ideológica, ni la de expresión, pueden amparar manifestaciones o expresiones destinadas a menospreciar o a generar sentimientos de hostilidad contra determinados grupos étnicos, de extranjeros o inmigrantes, religiosos o sociales."*

*Toki eremutik diskriminazioa errotik kentzeko lanean aurrera egitea bilatzen duten zenbait ekintza ezarri dira, sentsibilizazio planak diseinatu dira, baita jardunbide egoki sorta bat ere, eragile*

*Desde el ámbito local se establecen actuaciones que pretenden avanzar a la erradicación de la discriminación, diseñando planes de sensibilización, elaborando, como así se hace, un*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*publikoen eta pribatuen arteko loturak estututa, herritarrekiko hurbilen dauden mailak diren aldetik, gizarte anitz baten alderdi positiboetan eragiteko asmoz.*

*Tolerantziaren etika eta kultur arteko hezkuntza, gizarte integrazioarekin eta giza eskubideen bermearekin batera, ezinbesteko faktoreak dira arraza bazterkeria ezabatu eta bizikidetza demokratikoaren aldeko etengabeko borrokan aurrera egin ahal izateko.*

*Nolanahi ere, tokiko ekimen horiek eraginkorrak izatea nahi badugu, legezko neurriez lagunduta etorri behar dute, horien artean, tratu berdineko eta diskriminazioa ezabatzeko lege bat, diskriminazioaren aurkako politiken esparru orokor bat ezarriko duena, eta gure antolamenduari bazterkeria gainditzeko funtsezko elementuak ekarriko dizkiona, baita politika kriminaleko proposamen serio, indartsu eta koherente bat ere, gorroto delituen aurkako Lege Integral baten bidez. Lege horrek fenomenoa aztertu eta jarraipena egin beharko dio, baita hura prebenitu, biktimei arreta eskaini eta, nola ez, zigorrak ezarri ere.*

*Hona hemen gure Udala honako erakunde adierazpen hau aurkeztera eraman duten arrazoietako batzuk:*

*1. Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du arraza diskriminazioaren aurkako borrokarekiko konpromisoa, eta bat egiten du Arraza Diskriminazioa Ezabatzeko Nazioarteko Eguna dela eta egingo diren oroitzapenezko ekintzekin.*

*compendio de buenas prácticas y estrechando la colaboración con otros agentes públicos y privados con el fin de influir desde estos niveles, que son los más cercanos a la ciudadanía, en los aspectos positivos de una sociedad diversa.*

*La ética de la tolerancia y la educación intercultural, junto con la integración social y la garantía de los derechos humanos, son factores necesarios para eliminar la discriminación racial y para que podamos avanzar en esa lucha permanente por a convivencia democrática.*

*No obstante, si queremos que estas iniciativas locales resulten eficaces requieren del respaldo de medidas legislativas, entre ellas el de la elaboración de una Ley de Igualdad de trato y no discriminación que establezca un marco general de las políticas antidiscriminatorias e incorpore a nuestro ordenamiento elementos tan esenciales para combatir la discriminación así como una propuesta seria, potente y coherente de política criminal mediante una Ley Integral contra los delitos de odio que incluya el estudio y seguimiento del fenómeno, su prevención, la atención a las víctimas y, por supuesto, la sanción.*

*Estas son algunas de las razones que llevan a este ayuntamiento a presentar la siguiente Declaración institucional:*

*1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián reitera su compromiso en la lucha contra la discriminación racial y se suma a los eventos que con motivo de la conmemoración del día Internacional para la Eliminación de la Discriminación*

IFK/CIF P2007400A / IEE/REL 01200697
6161N 97-06
Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*Racial, se celebren.*

*2. Donostiako Udalbatzak gaitzetsi egiten du edozer bitartekoren bidez gauzatzen den izaera arrazista, xenofobo edo gorrotozko ideia adierazpen eta/edo hedapen oro.*

*2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián condena cualquier manifestación y/o difusión de ideas de carácter racista, xenófobo o de odio que se produzca por cualquier medio.*

*3. Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Espainiako Gobernuari berriz hel diezaiola Tratu Berdina izateari eta Diskriminaziorik ez izateari buruzko Lege Proiektuari eta, ahalik eta adostasun handienarekin, lege esparru bat sor dezala diskriminazio eta gorroto delitu oro prebenitu eta errotik ezabatzeko.*

*3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno de España a retomar el Proyecto de Ley de Igualdad de Trato y la No Discriminación y con el mayor consenso posible elaborar un marco legislativo con el objetivo de prevenir y erradicar toda clase de discriminación y delitos de odio.*

*4. Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari immigrazioak Euskal Herriko hazkunde ekonomikoan eta sozialean betetzen duen rola agerian jarriko duen ikerketak bultza ditzala.*

*4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que promueva la realización de investigaciones que pongan de manifiesto el papel que juega la inmigración el el crecimiento económico y social de Euskal Herria.*

*5. Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari oreka ditzala funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetara bideratzen dituen ikasle migratzaileen eta gutxiengo etnikoko ikasleen ehunekoak, ikastetxe horiek publikoak edo itunpekoak diren gorabehera.*

*5. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que equilibre los porcentajes de alumnas y alumnos migrantes y pertenecientes a minorías étnicas que se derivan a los centros de enseñanza que reciben fondos públicos, sean éstos públicos o concertados.*

*6. Donostiako Udalbatzak biziki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari lagun dezala migratzaileen ikuspegi instrumentala gaindituko duten eta Europan sartzeko bide seguruak gaituko dituzten asilo politikak garatzen, migratzaileei eta iheslariei dagozkien eskubide guztiak aitortuta, pertsona horien gizarteratze osoa sustatuko dutenak.*

*6. El pleno del ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno Vasco que colabore en el desarrollo de políticas migratorias de asilo que superen la visión instrumental de los migrantes, garanticen el derecho de asilo, habiliten vías de entrada en Europa seguras y legales y, reconociendo a migrantes y refugiados todos sus derechos, promuevan la total integración social de estas personas.*

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N-97-06 Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

*7. Donostiako Udalbatzak bere gain hartzen du dagoen aniztasuna aprobetxatuko duten espazioak aktibatzeko eta gure hirian diren kultura guztiekin etengabeko elkarrizketa ezartzeko konpromisoa, desberdintasunak errespetatuta, guztien artean bizikidetza bidezkoago eta pozgarriago bat eraikitzeko.*

*7. El pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián asume el compromiso de activar espacios que aprovechen la pluralidad existente para establecer un diálogo permanente con las diferentes culturas que existen en nuestra ciudad, respetando las diferencias, para construir entre todas y todos una convivencia justa y satisfactoria.*

*8. Donostiako Udalbatzak bere gain hartzen du lan eremuan arrazismoa eta xenofobia prebenitzeko eta ezabatzeko politikak bultzatzeko eta herritar talde horien enplegu aukerak sustatzeko konpromisoa". =================*

*8. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián asume el compromiso de fomentar las políticas de prevención y eliminación del racismo y la xenofobia en el ámbito laboral y promover las oportunidades de empleo de estos colectivos de ciudadanas y ciudadanos".*
=========================

IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
6161N 97-06

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2017ko apirilaren 7an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 7 de abril de 2017.

**IDAZKARI NAGUSIA –**
**EL SECRETARIO GENERAL:**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Idazkari Nagusia
Secretario General

**Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

**Eneko Goia Laso**